



IV AKTA

Gaia: Idazkari/Administrazio-laguntzaile lanpostua betetzeko langileen aukeraketa-prozesua Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan lan egiteko. Ezagutza probaren behin-betiko emaitzak.

Prozesua:

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritzan Idazkari/Administrazio-laguntzaile bezala lan egiteko kontratazio prozesua da.

Prozesuak hiru fase ditu:

1. Hautagaien aurkezpena eta aukeraketa.
2. Ezagutza proba.
3. Elkarrizketa pertsonala eta merituen balorazioa.

Aukeraketa-prozesuaren 2 eta 3 faseak deialdiaren oinarrietan azaldutako azterketaren bi faseei dagozkie (Deialdiaren 6.2 atalean): oposizioarena, bi ariketaz osatuta dagoena (ezagutza proba eta elkarrizketa pertsonala) eta merituen balorazioa.

Deialdiaren oinarrien arabera, ezagutza proba fasean lanpostuari lotutako eginkizunekin zerikusi zuzena duen azterketa bat egingo da, zeina nahitaezkoa eta baztertzaillea izango den. Gehienez ere 30 puntuko puntuazioa lortu ahal izango da, eta 15 puntu lortzen ez dituzten hautagaiak kanporatuta geratuko dira.

Erreklamazio eta zuzenketa epeen ostean, onartutako behin betiko 2 hautagaien artean, guztiak (2) aurkeztu ziren ezagutza proba egitera. Proba hau lanpostuaren eginkizunekin lotutako bi ariketekin osatuta dago.

Ezagutza proba modu telematikoan egin zen, Epaimahai kalifikatzaileak adostu eta onartutakoaren arabera, 2022ko azaroaren 4ean, ostirala.

Ondoren, erreklamazio epea hasi zen, epe-muga azaroaren 12a, larunbata, izanik. Aldiz, 2 pertsona hautagaien idatzizko baimenean oinarrituta ezagutza probaren behin-betiko emaitzen argitaratzea aurreratzea adosten da.



Beraz, ezagutza proba gainditu eta prozesuaren hurrengo fasera pasatzen diren behinbetiko hautagaien zerrenda hau da (puntuazioaren arabera ordenatuta):

Erregistro zenbakia	1. ariketa	2. ariketa	Guztira
CN-40593081	13,95	13,95	27,90
CN-25574911	11,55	13,50	25,05

Ezagutza proba gainditu dituzten hautagaiei aukeraketa-prozesuaren hirugarren fasean parte hartzera deituko zaie. Elkarizketa pertsonalaren eguna, ordua, formatua, baldintzak eta beharrezko argibideak modu indibidualean komunikatuko dira.

New Yorkeko hirian, 2022ko azaroaren 11an.

Unai Telleria
Ordezkarria

Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Mahaiburua

Nerea Arrieta
Arduradun Institutuzionala
Euskadiren Estatu Batuetako Ordezkaritza
Epaimahai Kalifikatzaileko Idazkarria